

Alex Txikonen espedizinoa bueltau egingo da Manaslutik

10. orrialdea

Cintadok Espainiako Taekwondo Txapelketea irabazi dau

Jon Andoni Cintado zeberioztarrak Espainiako Txapelketea irabazi dau laugarrenez. Alacanten jokatu zan urtailaren 29an eta hiru burrukaldi irabazi behar izan ebazan, titulua lortzeako. Oin Europakoan eta Mundukoan parte hartzea dauka helburutzat. **10. orrialdea**



Bihotz Gorospek kontzertua emongo dau Igorren 19an

12. orrialdea

Munduko Kopako finala jokatu da Gorbeia Suzien

Lasterketea urri bigarrenaren 8an izango da Zeanurin.

Bertan parte hartzeako, 32 kilometroko lasterketarako izen emotea, martiaren 1etik 20ra izango da, eta 21 kilometrokoan, parte hartzeako apirilaren 4tik 24ra emon beharko da izena gorbeiasuzien.eus webgunean.

ISF-k, Nazioarteko Skyrunning Federazioak, aukeratu dau Gorbeia Suzien Munduko Mendiko Kopako finala hartzeako. Antolakuntza, lasterketa "handi, ikusgarri eta erakargarri bat" antolatuteko lanean dabil. Baita datozanei Zeanuri eta Gorbeia parajeak ezetuten emoteko be. **11. orrialdea**



Aratusteak mozorroa janzteko egunak



Zezeilaren atzen astegioren eta martiaren 1ean ospatuko dira Aratusteak. Atzenengo urteotan, karnabak tradiziozko eran ospatutera animetan ditue alkarteek eta erakundeek herritarrak. Mozorroez gainera, desfileak eta kultura ekitaldiak egongo dira herrietan, neguko jaiak ospatuteko. **8. orrialdea**

UBIDE, ZEBERIO

Langabezia tasa jeitsi zan 2021ean

Errota Fundazioaren datuen arabera, Ubidek eta Zeberio 2021eko abenduan, 2020ko martian baino langabezia tasa txikiagoa eukien; %4,6tik %4,3ra pasauz eta %9,4tik %7,70era pasauz, hurrengo hurrengo. Arratia, Ubide eta Zeberioko batz bestekoa, %9koa zan 2020ko martian eta %7,89koa 2021eko abenduan. **5. orrialdea**

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Osasun larrialdia bertan behera itxi dau Eusko Jaurlaritzek

Hilaren 10ean Labik, COVID-19ari aurre egiteko neurri guztiak bertan behera ixtea ebatzi eban eta hurrengo eguneko Lehendakariaren Dekretuak, pandemiaren ondoriozko osasun larrialdiko egoera amaitu dala deklaretan dau. Labi Aholku Batzordea be desegin da. **7. orrialdea**

ARRATIA

48 kilometro egingo ditu Korrikak Ubidetik Bediara

Apirilaren 6an, pasauko da Korrika Ubidetik Bediara 48 kilometro eginez; ibilbidearen 1.478 km-tik 1.525 km-ra, hain zuzen be. Tarte horretan Arratia, Ubide eta Zeberioko alkarte, erakunde eta jenteak eroango dabe lekukoa. Kilometroak 450 euroko prezioa dauka eta Igorreko Kubulu Euskaltegian, arratia@ae.eus helbidetan edo 94 631 56 57 telefonon erosi daiteke.

Korrikaren helburua AEK-ko euskaltegien lana indartzeko dirua biltzea izan arren, hori baino gehiago da, euskarearen alde Euskal Herri osoan zehar egiten dan ekimenik handiena eta ekitaldirik jentetsuena da. **9. orrialdea**

begitu 18

arratia
ubide
zeberio

BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

2022AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz. Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2022an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Literatura txokoa

BERTUTE TXIKIAK

Natalia Ginzburg (Palermo, 1916-Erroma, 1991) idazle italiarraren *Bertute txikiak* dakart irakurleen txoko honetara; Irene Hurtado de Saratxo Mendieta itzultzaileak, 2021ean, euskerara ekarri, hain zuzen be.

Atal bitan dagoz banatuta bertan topaiko dozuzanak. Lehen atalean, kontakizun autobiografikoak —*Negua Abruzzon, Zapata urratuak, Lagun baten erretratuak, Ingalaterraren gorazarrea eta arrangura, La Maison Volpé eta Bera eta ni*—; eta bigarrenean, saiakera literarioa izan daitekera —*Gizakiaren umea, Nire lanbidea, Isiltasuna, Giza harremanak eta Bertute txikiak*—.

II. Munduko gerran, disidente politikoa izateagaitik, erbesteratuta egin behar izan ebaneko

aldia kontetan dau, lehenengoan. Abruzzon pasauko dauan neguaz egingo deusku berba. Kartzelan zelan akabau eben senarra be agertuko da. Horrek sortutako etsipena, ezinegona... azaleratuz. Seme-alabak ikusi barik, bere amaren etxean egon beharko dira. Jaio zaneke uria eta erbestealdiko herria konparauko dauz, etxemina erakutsiz, gutunen zain...

Zapata urratuak kontakizunean, Nataliak berak kontetan deusku ama etxe onekoa izan zala, ordena eta txukuntasuna nagusi zizala. Bera, ostera, zapata apurtuakaz, urratuakaz ibiltzen ohitua egoan.

Holakoak gure inguruan be entzun eta ikusi ahal izan doguz. Behin urliak kontau eustan dirurik ez, eta zapata berakaz ibili behar zala, apurtuta egonda be. Periodiku orriak zapata barruan sartu eta aurrera! Komeriak euria egin

ezkero, plisti-plasta potxingoetan... Lehengo kontuek be gaurkotasuna daukie. "Txakurrak ortozik nahinon", dino esaereak. Dudatan nago esaera zahar hori zaharkituta geratu ez ete dan. Egun txakurrak zapatakaz ikusita nago. Batek daki hemendik gitxira takoiakaz ez ete doguzan ikusiko! Batek daki!

Lagun baten erretratuak, Cesare Pavese idazleak bere buruaz beste egin osteko kontakizuna agertzen da. Harremanetarako gata zen persona irudikatuten dau.

Ingalaterraren gorazarrea eta arrangura, eta, *La Maison Volpé* kontakizunetan, bigarren ezkontzako senarragaz bizi izandakoak dakar orrietara. Londreseko giroa, janaria, toki misterioetsuen deskripzioa (La maison Volpé), italiarren eta ingelesaren arteko aldea izakeran... Modu grafikoa azaltzen dau.


Bera eta ni kontakizunean, biga-

ren senarraren —Gabriel Baldini— eta beraren arteko aldeak dakar: hizkuntza, musikea, pintorea, museoak, bidaiak, zinema, antzerkia, harremanak, izaera eta beste batzuk erabiliko dauz senarra eta bera guztiz diferenteak zizala azalduteko.

Liburuaren bigarren partean gai sakonak eta pentsetako asko emongo deuskuezanak agertuten dira: gizarteari erasoten deusien gaiak, gerraren ondoriozko egoismoa, belaunaldien arteko kezka, klase sozialak, familia, lanbidea (idazle lanbidea, berea), hizkuntza eta hezkuntza, seme-alaben zaintza, amatasuna, isiltasuna, errua, bildurra, zoriontasuna, zorrigaitza, birtuteak... Tertulietarako makina bat material!

Hain dira asko ibiltzen dauzan gaiak eta zer pentsatua emoten dabenak, txoko honetan ezingo neukezala guztiak sartu. Horrengaitik, irakurle, onena zuk zeuk liburua hartu, hausnartu eta disfrutau egin zeinke!

Maite Bernola



Natalia Ginzburg

Bertute txikiak

Alberdania argialetxea, 2021

156 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Zezeilaren 14tik 20ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Zezeilaren 21etik 27ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Zezeilaren 28tik martiaren 6ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 631 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / *kulturetxea@igorre.net*

Euskotren 94 433 33 33 / *euskotren.eus*

Areatzako Notarioritza 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / *info@errota.eus*

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eus*

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era ordu. Jaiegunean orduo 07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduo: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan. Orduo: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunean: 07:45etik 21:45era orduo.

3911 Linea. Bilbo-Galdakoa Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik

22:00etara orduo. Zapatu eta domeketan

Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduo.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik

21:10era orduo. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era orduo. Jaiegunean: 07:30etik

21:30era orduo.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunean: 07:30etik 22:30era

orduro.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik

21:00etara orduo. Zapatuetan: 06:20tik

21:20era orduo.

Jaiegunean: 07:20tik 21:20era orduo.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunean, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduo.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunean: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

*08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urtetan diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduo.

Jaiegunean: 08:55etik 20:55era orduo.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik

21:00etara orduo. Zapatu eta jaiegunean ez

dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduo. Zapatu eta

jaiegunean ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00;

11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorre. Lanegun eta

zapatuetan: 07:55ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunean:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunean:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan:

Ubidekoak 09:00etan urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunean: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urtetan

dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik.

Jaiegunean: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau

Gasteizetik.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Telefonoa:** 94 673 90 13.
Helbide elektronikoa: *begitu@begitu.eus*
Webgunea: *www.begitu.eus*
Zuzendaria eta publizitate arduraduna: Iñigo Iruarizaga.
Telefonoa: 94 673 90 13 eta 649 979 115. E-posta: *inigoirua@begitu.eus*
Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 673 90 13 eta 649 979 112. E-posta: *beazpiri@begitu.eus*
Erredakzinoa: Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri.
Webgunearen arduraduna: Asier Abrisketa. Telefonoa: 94 673 90 13 eta 626 647 923. E-posta: *asierabrisketa@begitu.eus*
Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.
Banaketea: Garbikuzi enpresa (Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Lemoa, Ubide, Zeanuri eta Zeberio) eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre).
Tiradea: 7.300 ale. **Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.
Facebook: Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus. **Instagram:** @begitu.eus



Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

ERETXIA

Beste mundu bat, beste irakaskuntza bat

Ezohiko eskola baten irakasle bolondresa naz Mexikon. Ezohikoa dinot, baten bateri bere etxean eskola bat egitea bururatu jakolako eta daukan espazioagaz, Lehen Hezkuntzako seigarren maila eta Bigarren Hezkuntzako talde guztiak sartu ditualako. Gero beste diru apur bategaz Lehen Hezkuntzarako gela batzuk zabaldu ditu, batez be ume batzuen egoera bereziei aurre egitearren. Nik eskola honetan, Bigarren Hezkuntzan Espainola eta Literatura emoten dodaz.

Eskola honetan 60 (2,58 euro) peso ordainduten dabe gura-soek astean ume bakoitzeko eta diru horregaz, plantilan dagozan irakasleek (bolondresek izan ezik) 4.000 peso (171,71 euro) hilean kobretan dabe.

Analfabetismoari aurre egiteko, gobernuak INEA (Instituto de Educación para Adultos) sortu eban, eta eskoleak sistema honen bitartez izaperetzen ditu eskola-ziurtagiriak akordio batzuen bitartez. Klaseak jardinean antolatzen diran "ikasgeletan" emoten dira, seigarren mailan izan ezik; honeek etxe barruan hartzean ditue eskolak.

Bost urte daroadaz klaseak emoten bertan eta nigaz joan-etorrian ibili diran ikasle guztietatik lauk bakarrik amaitu dabe Bigarren Hezkuntza eta bat bakarrik hasi da Batxilergoa ikasten. Besteen artean danetik dago, lan prekarioetan dabilzanak, trapi-txeoari ekin deutesienak edo-eta etxean bizi dituen arazoek iruntsitakoak.

Baina nik ha-ta guzti be, esperantzearen eskolea dala esango neuke. Gehienak, sistema ofizialek galduta urten diran umeak dira, mamuak izango balira lez egon diranak, irakaskuntzeari ezelango baliorik emoten ez deutesien familiakaz. Hemen, idazten eta irakurten ikasteaz aparte, gura izan ezkerro, aurre-



OIANE URUTXURTU ESPINOSA

Antropologo eta gizarte langilea

ra egin ahal leikela sentiduten dabe. Eskolan ez dago kurrikulum espezifikoa bat, beharrianak dira gure kurrikulum eta kreatibitatea gure erremintarik baliotsuena. Logopeda eta irakaskuntza bereziko irakasle faltan, geu gara logopeda, psikologo, pedagogoa, sukaldari, aholkulari espiritua eta hezitzaileak. Baina batez be gu itsasontzi eta eurek móbimentuan ipinten gaituen urak gara, batzuetan olatu erraldoiakaz eta beste batzuetan bare.

Dana dala, urtero pozten gaitue euren lorpenek. Aurtengoak esate baterako; klasean ez lokartzea, hilabete baten falta bat baino gehiago ez izatea, kuadernuan orri guztietan idaztea (edo kuadernua eukitea, segun eta ikaslea), maiuskulak testu hasieran eta puntu ondoren jartzea, *haiga (haya)* berbea ez dala existiduten, Australia non dagoan, gauza bat beste baten antzekoa danean, bardina ez dala ulertzea, Printze txikiak adiskidetasunari buruz kontatzen deuskuna ulertzea eta Neil Gaimanen, *El libro del cementerio* irakurten gozatu-tea, itzelak danak!

Irakaskuntza ikasle zerbizura dago eta ikasle motak, munduan dagozan errealdadeen bestekoak dira. Eskerrak emoten deutesdaz behar izan bereziak dituenak ikusteko gaitasuna dabenei eta eurek lagunduteko bultzakada bat emoten deuskuenei. Nire eskolako zuzendariari buruz nabili, etxeko jaubea, berea besteen etxea bihurtu dauana. Eskerrak, ni mundu eta esperientzia barri bat ezetutera eroateagaitik eta persona erabarritua bihurtzeagaitik. Eta horregaitik kontau gura izan deutesuet hau, munduaren beste aldetik nire herrian hau jakitea gura nebalako eta personak bere bizitzaren ardatza dabenen lanaren ohiartzuna ahalik eta urrunago heltzea merezi dauala uste dodalako.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idaztenik izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Aner eta Leire pasean dabiz. Leire Manu berreskuratuteko esperantzeagaz jabilko Anerri, eta Aner, dakianagaitik, disimuletan ahaleginduko da; beste kontuetara jota, udeko planak komentauko dabez. (I)

Leire: Aner, ez doazat eskerrak emon, aurrekoan Manugez bakarrik itxitearren.

Aner: (Disimuletan) Tire... hasarre egon hintzoan nigez, Leire, eta gurago ñonan alde ein eta zuok lasai itxi.

Leire: Ez zoan ezebe pasau, baia bajekoat gogoa behingoarren jakiteko nigez paso eiten joken ala ez.

Aner: Gitxi egon nintzonan zuokaz, baia Manuk ikusi hindunan orduen, piloa poztu zonan.

Leire: Bai, eh?

Aner: Bai... Halanda be, berak ezebe esan arte, hik presa barik.

Leire: Bai, arpelik dok ilusiñoa eukitea, eztok?

Aner: Behin amaitu zinduen, eta hik ez dona merezidu holango beste palukada bat jasotea.

Leire: Ez, eztok?

Aner: Ez. Ganera berak ondino ez jona kiñurik ein; kontuz gero...

Leire: Bere jarrera ikusite, ez ñeukek aukerarik ikusi behako, baia ondoan jaokenean, segiduen berotuten nok...

Aner: Sue, eztok?

Leire: Sue, Aner, sue!

NETFLIX EUSKARAZ

WWW.PANTAILAKEUSKARAZ.EUS

EUSKARAZKO
IKUS-ENTZUNEZKOEN
ALDEKO EKIMENA

Sinatu eskaerea helbide honetan:

<https://www.change.org/p/basque-governments-netflix-netflix-euskaraz-in-basque-en-euskera>

LUMATUTEN



GONTZAL MENDIBIL

Hotel Arantzazu eta hobe!

Pello Zabala, Arantzazuko frantziskotar eukaltzale, idazle, musikari, naturazalea eta urte askotan Euskadi irratitik eguraldiaren barriak emoten euskuzan fraileak agur esan deusku.

Aloña eta Aitzgorri mendipean dagoan Arantzazu, euskaldunontzat mendeetan zehar gune kulturala eta espirituala izan da eta bertako etorkizuna guztiz dago kolokan. Begibistan da fraile bokazino barririk ez dagoala eta egotekotan kanpotik bertaratuak izan daitezkeza. Gogoan dot oin lau bat urte Arantzazun Pellogaz berbetan nengoan eta nire bereganako itauna: Pello, hemendik hoge-hogeta bost urtera Arantzazu zer? Eta nire harri-durarako, haxe bere erantzuna, "begiratu gora, Hotel Arantzazu eta hobe!", zer esan gura ete eban Pellok?

Ba, bai, ulertu neutsan, Arantzazu, gordelekua izan da, euskaldunontzat gune espirituala

dan moduan, euskal kulturearen erdigunea, geure sena eta izatearen ezaugarri nabarmenak daukaguz bertan: artea, erlijinoa, kultura eta natura bat egiten dan kokagune dogu Arantzazu, betidanik euskereari eta euskal kultureari loturik izan dan para-jea dogu eta horixe zan Pelloren kezka eta ardurea, urte askotan lortu izan doguna, desagertuko ete dan.

Garaiak aldakorrek dira eta errealitatea dan modukoa da eta akaso eleizan bertan be, mundu barri honetara egokituz askotxo izango da aldatu beharrekoa. Erlijinoak eta batez be kristautasunak Europa osoan nabarmen behera egin dauan garai honetan, Arantzazuk bere eukal izatea galdu ez dagiala ba. Euskera batuaren zutabeak bertan jarri ziran.

Villasante, Gandiaga, Eulate, Oteiza, Chillida, Sainz de Oiza, Nestor Basterretxea eta abar luzeak itxi dabez bertan euren sorkuntzaren aztarnak.

Euskal kulturearen zutabe eta arnas izaten jarraitu dagiala.

Horixe gura eban Pellok, eta horixe bera gura geunke euskaldunok.

Krisiak ez dira bape onuragarriak baina erlijinoaren krisiak aukera barriak be ekarri daitez. Bada ba zer egin eta zer aztertu!

ZERTZEAN



IRATI ASTONDOA

Gaia jarrita: "Teknologiatik ezjakintasunera"

ago

1

Kokoteraino kontestadore interneteko zitekin kokoteraino ordu limite ta "niri txartelarekin" lehenengo arreta nora joan da? Covid kontuekin inor ez gara konturututen dana QR eta PIN inor akordau ete da gure adineko pertsonekin.

2

Ogasun zita lehen banketxean eta orain barriz *on line* seme-alaba edo lobaren batek ia noz egingo zain oso moderno ta intelektual bihurtzen gabiz horren "hain" mundua hankaz gora doa-ta urtenbidea gure gain gure esku dau merezi dogun arreta lortzea orain.

3

Egoera honek tristura handie ez ahal dotsue ekarten konektaute ez bagauz inora ezin leikegule urten jateke normal baten be eztaure menue eskure emoten burukomine be eiten jata pentsetan hasiz sarriten noraino heltzen gabizen inor ez garela konturatzen.

4

Ta non dau lehenengo poteorako iminten gindun botea errezago da antza Tricounta edo Bizuma itea bakardadera egoismora zabaltzen gabiz atea bizi estilo hau bada "lista ta azkarra" izatea harrotasunez ignorantzien nahiago dot bizitea.

BEGI TXINDORRA

Usadio baten arabera, umeek Santa Ageda bezperan eleiza edo ermita bateko kanpaia jo ezker, urte osoa buruku minik barik pasauko dabe. Arteako kuadrilla batek herriko kaleetatik koplak kanteteaz gainera, San Martingo ermitara joan zan, umeek hango kanpaia joteko.

Umeak, pozarren ibili ziran.

Gaur egun badakigu ezin dala urte bateko buruko mina prebenidu, baita horretarako ermita bateko kanpaia jotea ez dala eraginkorra be. Baina akaso, egun bateko umeen buruko mina saihesteko balio dau, ze zein umeri ez jako gustetan eleizako kanpaia jotea? Eta poza eta ilusinoa baino gauza hoberik badago, buruko minik ez izateko? Ez dot uste.

Batzuetan, (batzuetan bakarrik) tradizinoa eta lehenengo usadioak atxakia onak izan daitezke, poza berreskuratu eta etorkizun hobearegiteko. Edo-eta egun eder bat pasetako, beste barik.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39
Fernando 699 29 67 17 Arkoitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06
Pozuetu poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia
Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bilaka
T. 94 631 50 39
Kalejuru Zabalde 101
R.P.S. 21/06

UBIDE, ZEBERIO

Ubiden eta Zeberion 2021eko abenduko langabezia tasa txikiagoa zan 2020ko martikoa baino

Errota Fundazioak Ubide eta Zeberiko langabeziaren bilakaeraren datuak gehitu ditu BEGITURA bialdutako txostenean.

Erredakzioa

Eskualdeko langabezia COVID-19aren aurreko langabezia tasetara edo txikiagoetara heldu dala, pandemiaren eragina gaituta, ondorioztatu dau Errota Fundazioaren ikerketeak.

Bere datuen arabera, Ubidek, 2020ko martian, %4,6ko langabezia tasa eukan (%3,8 gizonen eta %5,71 andrek), eta 2021eko abenduan, %4,3 (gizonen %1,89 eta andrek %7,5). Zebe-

rian, langabezia tasa %9,4tik (gizonen %8,39 eta andrek 10,37), %7,70ra pasau zan (gizonen %9 eta andrek %6,41) denpora tarte horretan. Holan, Arratia Ubide eta Zeberiko batz besteko langabezia tasa, %9koa zan 2020ko martian eta %7,89koa 2021eko abenduan. Gizon eta andren taseari erreparau ezkeru, gizonen langabezia batez besteko tasa %7,83tik %7,38ra pasau zan eta andrazkoena %10,29tik %8,49ra jeitsi zan.



Goian Ubideko datuak eta behean Zeberikoak.

ZEBERIO

Plaka fotovoltaikoak ipiniko ditue eskolan

Zezeilaren 11n onartu ziran 2022ko Udal kontuak Zeberion. Bigarren botazinoan onartu ziran, EAJ-PNVren aldeko lau boto, tartean alkatearena, eta EH Bilduren kontrako lau botogaz.

Erredakzioa

Aurten, 1.518.671 euro kudeatuko ditu Udalak, igaz baino %9,67 gehiago. Proiekturik garrantzitsuenetakoa, eskoletako energiari jagokona da. Biomasa eta plaka fotovoltaikoak ipiniko ditue "ia %100 jasangarria izateko". Horretarako 200.000 euro behar izango dira. Udal eraikin batzuen teilatuak be konponduko dira, 59.216 euroko diru partidea dago horretarako.

Kultura ondarea babestu eta zabaltzeko, 42.154 euro dagoz aurtengo udal kontuetan. Errege kaltzadearen zati bat berreskuratzeko eta memoria historikoa berreskuratzearan inguruko beste jarduera batzuetarako be badago dirua.

Ingurumen esku-hartzetarako 27.750 euro dagoz eta bideak konponduteko beste 39.292 euro.

Herriko kultura eta kirol hainbat alkarte diruz lagunduko dira, eta edadekoen aire zabalean gimnasia egiteko tresnak ipini eta eremu bereziak sortuko dira.

EH Bilduk ezezko botoa

EH Bilduk aurrekontuei ezezkoa emon eutsan, beste gauza batzuen artean, taldeak egindako "aldaketarik txikiena be ez zalako onartu" Roberto Calleja zinegotziaren esanetan. Igazko aldean gauza batzuk hobetu dirala baina ez dagoz ados "jokabide eta prozedure-agaz". Gainera, diru gehiago egonda, EH Bildukoek asmo handiagoko proiektuak etxebizitzari, lehen sektoreari, gazteei eta energiari helduteko espero ebezala esan eban "baina ez da ezer barririk ekarri".



IGORRE

Aprilean ebatziko dau epaileak Kiñuren etorkizuna

Erredakzioa

Kaleratze arriskuari aurre egiten hasi eta Sabadell banketxea negoziaketara bultzatzeko, zezeilaren 19an Igorren egingo dan manifestazinoan parte hartzeako deia luzatu dabe asanbladakideek.

Hile luzez itxaroten egon ostean, heldu da epaikerarako zitazinoak: aprilaren 27an, Durangoko epaitegian. Epeak zehaztuta, bide biri ekingo deusie Gaztetxea kudeatzen daben gazteek. Batetik, konponbidea topetako Sabadellegaz zuzenean negoziatzen jarraituko dabe. Bestetik, negoziatzinoak aurrera egiten ez badau, desalojo egunari aurre egite-

ko prestatzen be hasi dira.

Kaleratze arriskua aktibauta, manifestazinoan antolatu dabe zapatuan, hilak 19, Igorren. Kultur Etxeko plazatik urtengo dira manifestariak 19:00etan. Bidean, jentea batu eta "Kiñuz gaztetxea defendatu" lemapean bilatuko dabe alkartasuna.

Negoiazino mahaian presionetako, herritarren eta Gaztetxearen arteko loturea erakutsi gura dabe mobilizazinoetan. Horretarako, igorreztarrei arriskuaren barri emon eta jentea Kiñu Gaztetxearen aldeko burrukara hurbildu beharko dabe asanbladakideek.

Herritarrena bakarrik ez, Igorre-

ko Udalaren eretxia be publiko egitea gura izan dabe. Zezeilaren 14an, gazteek aurkeztutako mozinoa eztabaidatu eta bozkatuko zan plenoan.

Gatazka luzea

2020tik dago Kiñu Gaztetxea prozesu judizialean murgilduta. Gaur egun eraikinaren jaubea dan Sabadellek, aurreko jaubeagaz sinatu zan kontratuari kasu egin barik, salaketea ipini ebanetik. Orduetik, negoziaketa eta epaiketarako baldintzak hobetuten ibili dira burokrasiak eta pandemiak eragindako oztopoen gaintetik. Urte bi indarrak batu eta antolatzen egon ostean, heldu jakie atzen pausuak emoteko ordua. Negoziaketa ondo ez badoa, asanbladakideek uste dabe dabe hutsitze eguna maizta amaieran izan daitekeala.

LEMOA

Gazteentzako udako bidaietan parte hartzeako izen-emotea zabalik

Erredakzioa

Hilaren 18ra arte zabalik dago Elkartruke Proiektuko urteroko udako bidaiarako izen emotea Lemoako udal webgunean. Bertan, proiektuan parte hartu eta Lemoan erroldatutako eta 2001 eta 2004 bitartean jaiotako gazteek emon leikie ize-

na. Bidaia, garagarriaren 11tik 17ra izango da eta 250 euroko prezioa dauka. Hogei plaza dagoz.

Alkartrukeko bidaia nora dan, proiektuaren aurkezpenean, izena emon ostean esaten jakie gazteei; izan be, proiektura apuntetan dira gazteak, ez helmugara. Aurtengo proiektua, migrazino-

gaz lotuta dago "Denok etorkinak, denok ongi etorriak" lemapean. Urtean zehar gaiagaz loturea daukien espazioak bisitau eta kolektiboak ezetuten ditue. Udan, bidaia bat egiten dabe, gazteek parte hartzean daben beste herrialde bateko alkarte bategaz biltzeako eta euren lana, proiektu eta abarren barri jakiteko.



BEDIA

Euskeraz biziteko plana egiten dabiz

Erredakzioa

Bediako Euskera Plana egiteko lan saioa egin zan zezeilaren 9an. Lurdes Etxezarreta Artabe Ahize-AEK-ko aholkulariak eta Bedian Euskera Teknikari lanetan dabilanak, oin arte egindakoaren eta diagnostikoaren barri emon eban, eta 2023-2027 urteetako indaraldia izango dauan planerako proposamenak egiteko eskatu eutsen bertaratu ziran herritarrei.

Diagnostikoa eginda dago eta Euskal Herriko beste herri askotan legez, Bedian euskerearen ezagutza maila handia da, baina ez horrenbeste erabilera. Bedia hazten dagoan herria da, atzen 20 urteotan gora egin dau. INEren datuen arabera, 2021ean Bediak 1.076 biztanle ebazan; 1061, 2020an. Gizon baino andra gehiago dagoz, (517 eta 559, hurrengo hurrengo) eta adinari jagokonean, moltso handiena 40 eta 60 urte bitartean dago. Biztanleen %80 inguru EAEn jaiotakoak dira.

Euskerearen ezagutzari jagokozan datuak 2016koak dira. Izan be, lau urterik behin ateraten dira baina 2021ekoak ez dagoz. Dana dala, ez da apenas aldaketarik egon 2001etik 2016ra eta ez da alde handirik egongo gaurko errealidadean be. Bedian, 2016an, %58,26 ziran euskaldunak, %19,09 ia euskaldunak eta %22,65 erdaldunak. Euskaldunak eta ia euskaldunak batu ezker, %77,35 dira. Baina etxeen %58an gaztelania da erabilten dan hizkuntzea; %25ean euskera eta %16an biak. AEKn



euskera ikasten dauan bediazarren kopuruak gora egin dau aurtan eta aurreko Euskaraldian be Bediako 80 herritarrek hartutako konpromisoa aitatu ebezan teknikariak.

Herritarren lehentasunak

Bediako herritarren eretxia eta ekarpenak jakiteko, Udalak galdetegi bat banandu eban. 34 erantzun jaso ebazan; 25 euskeraz eta 9 gaztelaniaz. Euskeraz erantzun ebenentzat, euskerearen erabilera bultzatutako lehentasunezko arloa familia zala erantzun eben 21ek (%80k) eta gazteak eta umeak be lehentasun handiko arlotzat hartu ebezan. Gaztelaniaz erantzun ebenentzat, erabilera sustatzeko lehentasun handiena daukienak gazteak dira. Esparruari jagokonean, familietan eragin behar dala erantzun eben euskeraz erantzun ebenek eta kultureari emon eutsien lehentasun handiena gaztelaniaz erantzundakoek. Euskerearen ezagutza eta erabilera handitzeko Udalak aisialdirako euskerazko

eskaintza sendoa egitea ezinbestekotzat jo eben galdetegari erantzun eutsien herritarrek.

Aurreko Euskera Planeko helburuen lortze mailaren balorazioa be eskatu eutseen bediazarrei galdetegian, eta orokorrean, ondo baloratu da familia transmisioan, euskalduntze eta irakaskuntzan, euskerearen erabilera, aisialdian, kulturean, kirolean, irakurzaletasunean eta komunikazioan lortutakoa.

Bertaraturakoen eretxiak

Ondoren euskera teknikariak eta Ahize-AEK-ko aholkulari bik bertaraturakoen eretxiak jaso ebezan, egiten dabizen Euskera Planean kontuan izateko. Bedian euskeraz biziteko oztopoak, alde dagozan gauzak eta hurrengo urteetarako proposamenak, taldeetan eztabaidatu ondoren jakinarazo eutseen teknikariei lan saioan parte hartu ebenek. Hurrengo lan saioetan jarraituko dau lanketeak Bedian 2023tik 2027ra arte indarrean egongo dan Euskera Plana egiteko.

ARRATIA

Mankomunidadeak ekimen pilotu bat abiatu dau bizikidetzaz hobetuteko

Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM), eskualdeko hezkuntza eragileakaz eta udalakaz batera, ekimen pilotu bat ipini dau martxan, "bizikidetzaz hobetu eta gazteen artean jokabide zibikoak" sustatzeko, kaleko gizarte hezitzaileen bidez. Mankomunidadearen Enplegu Planaren testuinguruan, eta Lanbideren babesagaz, lau gizarte-hezitzaile kontratu dira; bagila bitartean garatuko dabe

proiektu hau.

Hasieran Igorre eta Lemoako zentroetan jardungo dabe. Besteak beste, Oinezbusa eta Eskola bideak proiektuetan lagunduten. Baita, eskolen inguruko jardura ludikoetan parte hartzean eta jokaera osasungarri eta zibikoak bultzatzen.

Bigarren fase baten, udalerrietan zabalduko dira, udal ordezkariak zehaztutako jarduerak egiteko edo herritarren kezak eta proposamenak jasoteko.



ARRATIA

Ahiztatasuna landuteko ikastaroa egongo da Diman



Erredakzioa

Zezeilaren 18 eta 19rako dago aurreikusita Dimako eskolan. Ikastaroaren helburua norbere burua eta taldea zaintzen ikastea da eta formatzailea Edurne Epelde Pagola izango da.

Ahiztatasun berbeak andren arteko alkartasuna nahiz solidaridadeari egiten deutso erreferentzia. Patriarkaduak, andren arteko lehia eta ikusezintasuna erabili dau genero femeninoa eregiteko. Ikastaroan, zaintza, konfiantza eta kohesioa landuko dabe partaideek.

Edurne Epelde Pagola *Gure genealogia feministak-Euskal Herriko mugimendu feministaren kronika bat* (Emagin alkarrea, 2015) liburuko egileetako bat da, Miren Aranguren Etxarte eta Iratxe Retolaza Gutierrezegaz batera.

Tere Maldonadoren berbaldia atzeratuta

Zezeilaren 22an zan emotekoa Tere Maldonado *Egungo feminismoaren zereginak* izeneko berbaldia Bedian, baina atzeratu egin da martiaren 15era arte.

ARRATIA, UBIDE

Hondakin handiak batzeako egutegia ipintea proposatu deutso EH Bilduk Arratiako Mankomunidadeari

Erredakzioa

Bolumen handiko hondakinak, altzari eta elektrotresnak, batez be, bota gura dituenen, herritarrek deitu egin behar dabe Arratiako Udalen Mankomunitatera (AUM) abisetako eta AUMk jaso dagiazan, baina askotan ez dabe deitzean eta kalean pilatzen dira hondakinok. "Gero eta sarriago arazoak sortzean dira persona askok ez dabelako aurrez abisetan eta ondorioz bolumen handiko altzari edo elektrotresnak kaleetan pilatzen dira. Pilaketa honek zikinkeria eta arriskua suposatzen dabe eta horrezaz gain Manko-

munidadeko kudeaketea zailtzen dabe" dino Arratiako EH Bilduk ohar batean.

EH Bilduk, egutegia ezartzea proposatu dau, hondakinak herrietan beti egun bardinetan batzeako. Holan, herritarrek noz atera jakingo leukie eta Mankomunidadeari hondakin handiak batzea erraztuko leuskio. "Egutegia ezarri eta publiko egiteaz gain, udalek honen difusioa egiten lagunduko leukie".

Gainera, ezarritako egutegitik kanpo kalean ixten diran bolumen handiko hondakinei pegatina bat ezartzea eskatu deutso EH Bilduk Mankomunidadeari hondakin horreek txarto itxi dirala

eta jaubeak barriro batu behar dituala adierazoteko.



DIMA

Erasoen aurrean herriaren erantzuna!

Andraizea

Andraizeatik salatu gura doguz atzen urteetan jasandako erasoak taldeak egindako lanen kontra. Urtean zehar bardintasunaren aldeko hainbat sensibilizazio kanpaina egiten doguz. Atzen urteetan ahalegin berezia egin da herriko eskola eta alkarte desbardinakaz alkarlanean egiteko aitaturako kanpainak. Egindako atzena, ponpoi morez osotutako zugatza, Andraizeako kide, eskolako ume, jubiladu eta hainbat herritarren artean egin genduan abenduan. Zezeilaren 5ean, erreta agertu jakun zugatza!

Nahikoa da! Lemapean konzentrazioa deitu genduan astelehenerako, zezeilaren 7rako, eta herritarrei Andraizeatik jasotako basesa eskertu gura deutsegu lerro honeen bitartez.



ZEBERIO

Asiako liztorra harrapatzeko tranpak bananduko dauz Udalak

Erredakzioa

Liztor asiarra (*vespa velutina*) espezie inbaditzailearen urteroko kontrako kanpaina ipini dau martxan Zeberioiko Udalak. Zezeilaren 26an, 11:00etan, Gaztelekuan informazioa emoteko berbaldia egongo da eta Asiako liztor erreginak harrapatzeko tranpak bananduko dira.

Kanpainearen garrantzia eta igazko kanpainearen balorazioaren barri be emongo dau Udalak. Tranpen osagaiak zeintzuk diran azalduko da bertan, eta batez be lehenengo aldiz kanpainara

batzean diranentzat, zelan egin tranpa horreen jarraipena azalduko da.

Erleak babesten

Oin dala hamarkada bat baino gehiago heldu zan Asiako liztorra EAera eta 2015ean hainbat liztorhabi topau ebezan Zeberion. Espezie inbaditzaile honek, hemen ez dauka etsai naturalik eta bere dietan erleak dagoz. Erleen eska-siak, erlezainak kaltetzeaz gainera, desoreka ekologikoa dakar inguruan. Hori dala-ta, Zeberion, urtero, liztorrak harrapatuko kanpainak egiten dira.



IGORRE

Kiñu Gaztetxean ospatuko da ZUTIK! gazte martxearen Bizkaiko aurkezpena

Erredakzioa

Apirilaren 14an Zugarramurdin hasiko da Ernaik antolatutako martxea, "Bostehun eta ZUTIK!" lelopean. Elizondora heldu arte musika emonaldi, berbaldi eta tailerretan hartuko dabe parte gazteek eta 17an Iruñean egingo dan Aberri Egunean amaituko dabe egitasmoa. Baina aurretik, lurralde bakoitzean aurkezpen ekitaldi bat egingo da. Bizkaian zezeilaren 19an izango da aurkezpena, Igoerreko Kiñu Gaztetxean.

Hiru kontzertuk osotuko dabe aurkezpen jaialdia. Hasteko, rap doinuek zabalduko dabe gaua 21:00etan, Sigeruban bilbotarrak abestuko dau Pula Gzonek ipinitako

musikea. Gero, Iruñeako Leihotikan punk-rock talde beteteranoa igongo da oholtzara. Gaua amaituteko, Durangaldeko Gora Etorri taldeko neskek jantzatzeko doinuak ipiniko dabez; eurodance estiloko musikea, baina eurek dinoenez "euskaldunagoa eta baserritarragoa".

Igorreko jaialdia Baztaneko gazte martxearen aurrerapen txikia baino ez da. Izan be, atzen urte bietan ospatu ezin izan da arren, Emaik udabarro batu dauz milaka gazte independista aurreko edizinoetan. Arratian birritan egin da topagunea, 2017an Igorren eta 2019an Lemoan. Urtilaren 14an egindako aurkezpenean azaldu eben, "Bostehun eta ZUTIK!" leloagaz Amaiergo gazteluaren setioaren urteurrenari

egiten jakola keinu: "zutik dagoan herria eta zutik dagoan gazteria badala aldarrikatuko dogu".



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Osasun larrialdia bertan behera itxi dau Jaurlaritzeak

Erredakzioa

Zezeilaren 10ean Labik, COVID-19ari aurre egiteko neurri guztiak bertan behera ixtea ebatzi eban eta hurrengo eguneko Lehen-dakariaren Dekretuak, pandemiaren ondoriozko osasun larrialdiko egoerea amaitu dala deklaratan dau eta osasun larrialdiaren ondoriozko neurriak "ondorio barik geratzea". Labi Aholku Batzordea be desegin da. Dekretua zezeilaren 14an sartu da indarrean.

Hori dala eta, kendu egin dira aforo eta ordutegi murrizketak. Ordura arte, 01:00 zan zarratuteko ordua eta establezimentu gehienetan aforoa %60koa zan. Tabernetan, barran konsumidu ahal da eta mahaietan 10 persona baino gehiago batu ahal dira. Espainiako gobernuaren esku

dagozan neurriak bakarrik mantenduten dira: mosukoaren derrigortasuna barruko espazioetan eta kirol estadioetako edukierak, besteak beste. Espainiako gobernuak espazio zabaletan, mosukoaren derrigortasuna kendu eban zezeilaren 8an.

Osakidetzako langileak mobilizazioetan

LAB, SATSE, ELA, CCOO eta UGT sindikatuek, greba deialdia egin

dabe Osakidetzako Lehen Arretan zezeilaren 25erako, eta 28an greba deialdia Osakidetzako langile guztientzat izango da. Gainera, hilaren 26an, manifestazioak egingo dira Bilbon, Gasteizen eta Donostian.

Urtilaren 23an egindako manifestazio jentetsuen ostean, Osakidetzak eta Osasun Sailak, Osakidetzaren arazo larriak konponduteko, ez dabela pausurik emon salatu dabe sindikatuek. Osasun sistema publikoaren desegitea eta prekarizazioari aurre egiteko dira mobilizazioak, COVID-19aren krisiak larriagotu egin daualako egiturazko arazo hau.



ZEANURI

Ia-ia normaltasun osoz ospatu zan San Balendin

Erredakzioa

64 urte bete dauz Zeanuriko Eleizondo auzuneko artea neurtzearen tradizioak. Zezeilaren 13an, San Balendinen omenezko jaia ospatu zan Eleizondo auzunean. Igaz, COVID-19a zala eta,

auzuneko bizilagunek jaia era pribaduan ospatu eben, beste urte batzuetako jente pilaketak saihesteko eta aurten ia-ia normaltasunera itzuli dira, baina barauskarri barik.

Meza ostean, San Balendinen irudia parrokiatik 50 bat metrora

dagoan ermitara eroan eben prozesinoan, datorren urtera arte bertan itxeko. Jarraian ermitearen aurreko artea neurtu eben eta neurketearen akta sinatu eta gero, aurtengo maiordomoak, Irantzu Aranek, datorren urtekoari Rosi Ipiñazarrerri agiri-liburua eta ermitearen giltzea pasau eutsazan. Beste urte batzuetan, ostean barauskarria bananduten zan, baina COVID-19a dala eta aurten ez da barauskarrik egon.

ARATUSTEAK

Arratiako Aratusteak: disfrazetatik mozorrotzera

Zezeilaren atzenengo astegoienean ospatuko dira Aratusteak eskualdeko herri gehienetan. Sasoi baten martitzen karnabal egunean ospatzen bazan be, aspaldion astegoienera pasau dabe jaia herri askotan. Bedian, martitzenean ospatuten jarraituten dabe eta jaia martiaren 1ean izango da. Zezeileko atzenengo astegoienean, zein martiko lehenengo egunean, koloretako disfrazez edo-eta trapu zaharrakaz egindako mozorroez beteko dira Arratiako herri eta auzuneetako kaleak. Barikuan, desfileetako protagonista nagusiak, batez be, eskola-umeak izango dira eskolan egindako disfrazakaz.



Erredakzioa

Jaiaren eta jai ereduaren inguruko hausnarketeagaz hasiko da Areatza, zezeilaren 16an, 18:30ean, Oier Araolazak Udal Aretoan emongo dauan *Mozorrotzea ez da disfrazatzea* berbaldiagaz.

Ildo horretatik, Artean, Kokomarroak taldekoek, mozorrotuta egingo dabe kalejirea. 19:00etan, urtengo dira eskolatik eta plazaraino joango dira, bertan "Kuberue" erretako. "Kuberue" gauza txarrak sinbolizetan dauzan panpina da. Euskal Herri eta Europako leku askotan, ohitura zan panpin bat erretea. Panpinek, lekuaren arabera, izen desbardinak hartzean ebezan. Kuberue Dimako personaia bat zan eta hori aukeratu dabe Kokomarroak taldekoek txarra sinbolizetan dauan panpinari izena ipinteko. Kuberue erre ostean, mokautxoia egingo da ahoa gozatzeko. Hilaren 28an, Udalak antolatuta, Eleder magoa egingo da Arteako frontoian, ume eta nagusien gozamenarako.

Diman, Guraso Elkarteak antolatutako jaietan, jantzea izango

da nagusi; izan be, 17:00etan DJ Ismak eta 19:00etan Jokaldik ipiniko dabe estilo desbardinetako musika jantzarria. Ismaren saioaren ostean, mozorro desfilea egingo da eta Jokaldi taldearen berbenearen ostean, txokolatea.

Lemoan Udaleko Kultura Zerbitzuak antolatuta, hilaren 25ean, 18:30ean, Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen *Zoro gaitzen* ikuskizuna egingo da. Ikuskizunak, antzerkia, komedia, pailazotzea eta jantzea, baina batez be martxea buztartzen ditu. Taldearen betiko kanta abestuko ditue Lemoan, *Paristik natorren, Txirri, Mirri eta Txiribiton, Altza Pelipe*, eta abar, eta personaieen bihurrikeriak be ez dira faltauko. Oxabiren lagunak taldeagaz trikipoteoa egingo da herriko tabernetatik zehar, iluntzeko 19:30etik aurrera, jubiladuen tabernetatik hasita.

Martiaren 1ean da martitzen karnabal eta egun horretan ospatuko ditue Aratusteak Bedian. 17:30ean, *photocalla* egingo da eta desfilean parte hartzeako izen emotea izango da; 18:00etan, egingo da desfilea herriko kalee-

tatik eta 18:30ean, ikuskizuna egingo da frontoian.

Jakintzearen transmisioa neguko jaietan

Igorren Aratusteen inguruko hausnarketea egiteko, *Zelango Inauteriak gura doguz Igorren* partaidetza saioa egin zan. Honen abiapuntua, igaz martxan ipinitako Bizi Igorren 2030 prozesu zabalagoa da. Igorren Eskolako Guraso Elkarteak eta adineko pertsonak osotuten daben Bizi Batzordeak eta Udalak alkarlanean egiten dabe Bizi Igorre 2030 eta prozesu honen helburu nagusia Igorre bizigarri, parte-hartzaile eta jasangarria sortzea da.

Lau gai nagusien inguruan egiten da lan: elikadura eta kontsumo arduratsua, digitalizazioa, ohitura eta jakintzearen transmisioa eta herri bizigarria. Ohitura eta jakintzearen transmisioaren gaian dago urtailean egindako Oier Araolazaren berbaldia eta ondorengo partaidetza saioa. Hor, hainbat ekintza antolatu ditue Udalak, herriko alkarte eta eragileek, eta herritarrek disfrazatzera baino, mozorrotzera konbidatzen ditue.

Umeentzako ikuskizuna antolatu dau Udalak barikurako Igorren, hilak 25: Irrien Lagunak konpainiak, pailazoen abesti eta umoreagaz, *Elkartasun jantokia* antzetzuko dau 17:00etan, Kultur

Etxean. Sarrerea debaldekoa da. Hurrengo eguneko ikuskizuna ume eta nagusientzat da, eta kalean izango da. Udalak eta Guraso Elkarteak antolatuta, Igorren kaleetan, Lekittoko Deabruak kale animazino konpainia ibiliko da. Ostean, txokolatea bananduko dabe Guraso Elkarteok 105eko erugbi zelaian.

Hurrengo egunean, zapatuan, Garbetik urtenda, kalejirea egingo da eta jentea mozorrotuta joatera animau gura dau Udalak. Amaieran, gazteek antolatutako kopaua egingo da. Astelehenetan, hilak 28, Zazparrak eta Berbalagun taldeek familian egiteko ospakizuna antolatu dabe. Mozorro tailerra egingo da, eta 12:00etan kalejirea.

Kanporamartxo

Aratusteetako domeka aurreko domekan, kanpoan, auzoko eta lagunakaz txixi-burduntzia egiteko tradizioa dago. Neguko jaien parte dira eta giro ederra egoten da, burduntzian jatekoak prestatu eta mendian lagunakaz, edo kanpoan behintzat, jaten diran bitartean, askotan, musikea be egoten da. Sasoi baten erromeriak egoten ziran.

Areatzan 10:00etan da hitzordua plazan eta Artean, 13:00etan Elexabeitin kanporamartxo ospatuteko; Bedian hurrengo domekara pasau dabe, hilak 27.

Igorren Aratusteen inguruko hausnarketea egiteko, *Zelango Inauteriak gura doguz Igorren* partaidetza saioa egin zan. Honen abiapuntua, igaz martxan ipinitako Bizi Igorren 2030 prozesu zabalagoa da



KORRIKA

Arratiak 48 kilometrotan eroango dau lekukoa

Aprilaren 6an, zeharkako dau Korrikak Arratia hegoaldetik iparraldera 48 km eginaz; ibilbidearen 1.478 km-tik 1.525 km-ra, hain zuzen be. Tarte horretan Arratiako alkarte, erakunde eta jenteak eroango dabe lekukoa. Kilometro bakotzak 450 euroko prezioa dauka eta Igorreko Kubulu Euskaltegian bertan, arratia@aek.eus helbidean edo 94 631 56 57 telefonoan erosi daiteke.

Erredakzinoa

Korrikaren helburua AEK-ko euskaltegien lana indartzeko dirua biltzea izan arren, hori baino gehiago da, euskarearen alde Euskal Herri osoan zehar egiten dan ekimenik handiena eta, ekitaldirik jentetsuena da-ta. 1980an egin zan lehenengo Korrika eta oin arte, ehunka mila lagunek hartu dabe parte. Urte birik behin egiten da eta aurtengoa 22. edizioa da. Martiaren 31n hasiko da Amurrioren eta aprilaren 10ean amaituko da Donostian. Gelditu barik, hamaika egunetan zeharkatuko dau Euskal Herria, 2.000 kilometro baino gehiago eginaz.

Korrika Ubidetik sartuko da Arratiara 12:48an; Zeanurira, 14:08an helduko da; Areatzan, 14:25ean izango da; Artean, 14:40ean; Arantzazun 15:00etan; Igorren, 15:06an; Lemoan, 15:40ean eta Bedian 16:00etan. Dima eta Zeberiotik aurtan ez da pasauko.

Mezua eta omendua

Korrika 22.aren mezua Hitzekin da, berbakaz ekintzetara salto egiten dalako antolatzaileen us-tez. Eta berba egiteko ordua da. "Hortaz, ernatu, larrialdi linguistikoaren alarma gorriak bizten hasiak dira. Ekin deiogun berehala: aldekatasunetik konpromisora, eta konpromisotik erakunde orok urrats sendoagoak egin dagien eragitera, jendarterearen nahiei eta beharrei erantzuteko".

Pirritx, Porrotx eta Marimotots (Aiora Zulaika, Joxe Mari Agirretxe eta Mertxe Rodriguez) pailazoak omenduko ditu Korrikak, euskal munduan egindako 34 urteko ibilbidegaitik eta eragileak diralako orainaldiari eta etorkizunari begira. Hau da, urte honeetan guztietan erakutsi daben konpromisoagaitik eta ekinagaitik.

Korrika kulturalaren Arratiako ekintzak

Korrika kulturalagaz AEK-k, jen-

darteari zerbaist eskaini gura deutso bueltan Korrikaren alde egindako lanagaitik eta herri guztietan ekitaldiak antolatu edo



antolatutakoak bere programazi-noan sartzean ditu.

Arratian be, hainbat kultur ekitaldik daukie Korrika kulturaren zigilua. Areatzan, berbarako, zezeilaren 19ko *Oroitzen hondarrak nota txikietan* poesia emonaldi musikatua Korrika kulturalako ekintza bat da. Areatzako komentuan izango da 19:30ean. Korrika kulturalak Areatzan izango dauan beste ekintza bat, martia-

ren 5eko Gozategiren kontzertua da. Hau be komentuan izango da 19:30ean.

Igorreko martiaren 19ko sanjose-tako bertso saioa eta martiaren 25ean egingo dan Jon Maiaren *Kantu bat gara* kontzertua be Korrika kulturalan dagoz. Bedian aprilaren 1ean *Zirkoteke* egongo da eta aprilaren 2rako mendi martxea antolatu dau Ganzabalek Orozkon.



Laburbira

Euskarazko film laburren XIX.zirkuitua - 2022
Otsailaren 25etik martxoaren 27ra
www.topagunea.eus/laburbira

 SERENDIPIA Itzi Garmendia	 ITSASOAREN MUGIMENDUA Alba Rossera eta Rony Levoz	 LANBROA Paula Iglesias
 FALTA ZAIZUNA Jose Luis Lopez	 HURRENGO GELTOKIA Nola Algorrua Garro	 REWIND Amalia San Sebastian
 TURNOKA Aitor Alberdi	 SUBANDILLA Josu Martinez	 ITSASO Sergio Martinez Villar

TOKIA:
Areatzako Udai Areto Nagusia

EGUNA: Zezeilak 25 **ORDUA:** 19:30

ANTOLATZAILEA:
Zertu Kultur Elkartea eta Areatzako Udala

Antolatzailea: Babesleak: Laguntzailea:

FUTBOLA

Zabaldur dabe 2022-2023 denporaldirako izen emotea Arratia futbol klubeko eskolan**Erredakzioa**

Zuzendaritza barriari gauzak errazteko, aurten, inoz baino arinago zabaldur da hurrengo denporaldirako izen emoteko epea; zezeiletik, maiatzaren 1era, hain zuzen be.

Kategoriak hurrengo honek dira: Futbol Eskolea, 2015 eta 2017 bitartean jaiotakoak; Benjaminak 2013 eta 2014an jaiotakoak; Alebinak, 2011 eta 2012; Infantilak, 2009 eta 2010ean; Kadeteak, 2007 eta 2008an jaiotakoak, eta Jubenilak 2004tik 2006ra bitartean jaiotakoak.

Izen emotea, astelehenetik barikura egin daiteke, 16:30etik 18:00etara, klubeko bulegoan. Informazio gehiagorako, cda-rratia@cdarratia.com helbidera edo 617 803 440 telefonora jo daiteke.

Izen emotea, astelehenetik barikura egin daiteke, 16:30etik 18:00etara, klubeko bulegoan. Informazio gehiagorako, cda-rratia@cdarratia.com helbidera edo 617 803 440 telefonora jo daiteke.



MENDIA

Kanpamentua jaso eta bueltau egingo dira Alex Txikon eta bere espedizinokideak**Erredakzioa**

Manasluk ez deutse aukera erdirik be emon eta zezeilaren 10ean jeisteko ebatziaren barri emon eban Alex Txikon. Izan be, inoz bizi izan daben negurik gogorrenetakoa da hau eta "arriskua litzateke espedizinoarentzat" aurrera egitea.

Hurrengo egunetarako edur asko eta haize zakarra egoan iragarririk eta penaz hartu eben ebatzia. "Penea da, oso ondo prestatuta gengozalako. Etsita gagoz baina hau da egin geinken gauzarik onena. Oin dana desmontau behar da. Manasluk ez deusku aukera erdirik be emon" adierazo eban Txikon.

Etxera abiatu aurretik, kanpamentua desmontau eta elementu guztiak jaso behar ditue. Horretarako aste batzuetako lana beharko da.

Etxera abiatu aurretik, kanpamentua desmontau eta elementu guztiak jaso behar ditue. Horretarako aste batzuetako lana beharko da.



TAEKWONDOA

Jon Andoni Cintadok Espainiako Taekwondo Txapelketea irabazi dau

Urtailearen 29an, Alacanten jokatu zan Espainiako Txapelketea eta zeberioztarrak irabazi eban laugarrenez. Oin Europa eta Munduko Txapelketetan parte hartzeako plaza bat lortzean saiatuko da horretarako puntuagarriak diran txapelketetan parte hartuta. Rankinean lehenengoa da bere pisuko kategorian.

Erredakzioa

Hiru burrukaldi baino ez izan arren, gogorra izan zala txapelketea dino Cintadok. Lehenengo burrukaldia erraz irabazi eban. "Oso ondo dabilen Madrilgo gazte baten kontra izan zan, baina egia da nire esperientzia handiagoa dala eta igarri egin zala burrukan" azaldu deutso begituri. Hurrengo burrukaldi biak barriz, markagailu estuagoagaz amaitu ebazan. Finala, Raul Corredor lagun minaren kontra jokatu eban. Markagailuan "atzetik joan nintzan burrukearen zati baten, baina atzen hamar segundotan aurrean jarri nintzan eta irabazi egin neban".

Txapelketa berezia izan zala dino, familia eta lagun piloa egon ziralako bertan, baina ospatuteko astirik ez dauala izan, zezeileko lehenengo astegienean Arabiar Emierri Batuetako irekian lehiatzeko entrenau behar ebalako.

Europa eta Munduko Txapelketetan jokatzea helburu

Aurten jokoan dagoz Europako eta Munduko Txapelketetan parte hartzeako plazak. Zeberioztarra lehenengoa da eta "gauzak ondo ba doaz, espero dot neu izatea urteko zita nagusi bi horreetan parte hartuko dauana" dino. Europako Txapelketea udabarian izango da eta Mundukoa zemendian. Lehenago, Arabiar Emierri Batuetan, Albanian, Belgikan eta Bulgarian jokatu dituz hainbat ireki, kopa eta txapelketa.

Aurten jokoan dagoz Europako eta Munduko Txapelketetan parte hartzeako plazak. Zeberioztarra lehenengoa da eta "gauzak ondo ba doaz, espero dot neu izatea urteko zita nagusi bi horreetan parte hartuko dauana" dino. Europako Txapelketea udabarian izango da eta Mundukoa zemendian. Lehenago, Arabiar Emierri Batuetan, Albanian, Belgikan eta Bulgarian jokatu dituz hainbat ireki, kopa eta txapelketa.



PELOTEA

Eusko Label Txapelketako finalaurrekora sailkatu da Ainhoa Ruiz de Infante Kortazar**Erredakzioa**

Zezeilaren 13an Iruñeako Labrit pelotalekuan, Ainhoa Ruiz de Infante Kortazarrek eta Oihana Orbeagoz Iraetak, Ane Mendiburu Etxenike eta Irantzu Etxebeste lantziren kontra 19-22 irabazi ostean, finalaurrekora pasea lortu dabe. Zezeilaren 19an, Kortazar eta Iraeta, Iera Agirre Iturriaga eta Uxue Osés Egañaren kontra neurtuko dira Amurrión.

Eusko Label Binakako Pilota Txapelketa Nagusia, Ados Pilota eskuzko andra pelotari profesionalen lehen klubak antolatu dau. Erraketistei omenaldi moduan, pelotariak amen abizena daroe bizkarrean, kamisetetan; Txumuluxuetako Ainhoa Ruiz de Infante amaren abizena Kortazar da.

Aldai Emakume Master Cup-en Amaia Aldai Emakume Master Cup Binakako Txapelketea jokatuten

dabil. Lehenengo partidua zezeilaren 6an jokatu eban Eibarren, Andrea Capellanegaz, Arrizabalaga eta Gaminderen kontra eta 22-16 galdu eben. Hurrengo partidua Miriam Arraiza eta Itxaso Erasunen kontrakoa izango da, Asteasun, martiaren 5ean.

Elezkano eta Etxebarria

Liga profesionalean finalaurrekoetara pasetako aukerak mantenduten dabez Elezkano II.ak eta

Zabaletak, zezeilaren 12an Urrutikoetxea eta Arangurenari, Bilbon 22-10 irabazi ostean. Finalerdietara, zuzenean bikote bi pasauko dira eta hiru dagoz bardinduta, bederatzi partidua irabazita. Hurrengo partiduan, Elezkano II. eta Zabaleta, Jaka eta Mariezkurrena II. agaz neurtuko dira Iruñean.

Promozino mailan, hilaren 12an, Zabalak eta Oier Etxebarriak galdu egin eben, 18-22 Labrit pelotalekuan. Bosgarren dira sailkapenean.





Gorbeia Suzien Munduko Kopako finala izango da

ISF-k, Nazioarteko Skyrunning Federazioak,

Gorbeia Suzien 2022 aukeratu dau Munduko Kopako finala hartzeako. Urri bigarrenaren 8an izango da lasterketea eta han ebatziko da munduko puntu gehien batu dabezan eta Zeanurin egongo diran 40 lasterkari onenen artean txapelketa nor dan.



Erredakzioa

Munduko Kopako gainontzeko lasterketak Frantzia, Portugalen, Japonian, Austriar, Kanadan, Katalunian, Andorran, Norvegiar, Suitzar, Italian eta Bulgariar jokatu dira.

Lasterketek 32 kilometro eta 21 kilometro ditue. 32 kilometroko lasterketarako izen emotea martiaren 1etik 20ra bitartean egin ahal izango da gorbeiasuzien.eus atarian. Ondoren, zozketa bidez osotuko da urtekerako parte hartzaileen zerrenda eta baita itxaron zerrenda be. 21 kilometrotako lasterketako izen emotea barriz, apirilaren 4tik 24ra bitartean egongo da zabalik dorsalak amaitu arte. Aurten be antolakuntzeak andren presentzia bermatzeko ahalagin berezia egingo dau.

SkyMasters aurrera eroateko beharrezko dabil antolakuntzea eta

Jurek Ziemkiewicz, lasterketearen zuzendariak adierazo dauenez, "Munduko Txapelketako finala hartzea erronka handia da, baina baita lasterketea eta Zeanuri mundu zabalean ezetutera emoteko aukera eder bat be. Ilusioz hartu dogu ISF-ren ebatzia eta urtero legez, lasterketa handi, ikusgarri eta erakargarri bat antolatuteko lanean gabiz. Zeanurira datorrenak lasterketaz gozatzea da helburua".

Boluntarioen lana be aiatu gura izan dau. "Gurean bereizgarriak dira Gorbeia Parke Naturala bera, bazean doguzan 250 boluntarioak eta behar egiteko gogoa". Beste alde batetik, pisu handiko errazoiak be badirala uste dau; lasterketearen inguruan urtero dagoan giroa eta Euskal Herriko mendizaletasuna, berbarako, gixitan beteten diralako mendiak korrikalarietako animoak emoteko.



Jokin Zabala: "Arrakasta handia euki dau aurten lasterketeak, maila altua izango dau"

Martiaren 19an izango da aurtengo Kolazino Mendi Eguna. Lasterketa bi eta martxa bat egongo dira. Lasterketa nagusiak 24 km ditu eta 1.700 metroko desnibela.

Hau, Bizkaiko Mendi Federazioaren mendi lasterketen Banakako eta Taldekako Txapelketea, eta Euskal Mendizale Federazioaren Kopako lasterketa puntuagarria izango da. Hamasei kilometrokoa be puntuagarria izango da Koparako eta Bizkaiko Txapelketea Junior eta Kadete kategorietan. Martxeak 16 kilometro ditu.

Erredakzioa

Lasterketek aparte egingo dozue ezer? Aurreko urteetan izaten zan jai moduko bat.

Ez, COVID-19aren egoera dala eta, ez dogu gura herrian aglomerazio handirik egotea. Jente asko da eta ez dogu egoki ikusten danak herrian batera bazkaldutea; ia mila persona dira, 800 partaide eta 150 boluntario, eta Bediako plazea ez da hain handia. Egingo doguna da lasterkari bakotxari *take away* bazkari bat emon eta holan bakotxak bere bazkaria eukiko dau, baina hemen geratu beharrezan mobidu ahal izango da kotxera edo etxera edo bakotxak gura dauan lekura.

Penea da, guk danagaz bueltau gura genduan, gure bueltau izatea aurreko edizinoetakoaren modukoa, bazkariagaz eta abar. Aurreko urte bietan geratu da egin barik. Izan be, 2020an justu egin behar zan astean konfinau ginduzan; justu aste horretako astegoienean izan behar zan karrera. Babesle eta laguntzaile batzuek dirua aurreratuta eukien eta gauza batzuk eginda egozan, eta eurei zor deutsegu karrera bat egin eben esfortzuagaitik. Horregaitik uste dogu bueltetako ordua dala, normalidadea topetako ordua, eta ebatzi genduan nahiz eta bazkariak ez egin, bueltau behar ginala.

Zezeilaren hasieran, zelan doaz izen-emoteak?

Momentu honetan (zezeilak 1) 24 km-ko lasterketan, 320k emon dabe izena eta 400 izen emote dira guztira. Gero 16 km-koan dagoz 100 persona izena emonda, eta martxan beste 100. Horreetan 200era arte emon daiek izena. Hilabetea falta danean, izen emoteak ondo doazala esango neuke, azkenengo bultzadaxoa falta jaku.

Izen ezagunik badago horreen artean?

Bai. Egia esan, arrakasta handia euki dau aurten 24 km-ko laster-



keteak eta maila oso altua izango da bai mutiletan, bai nesketan. Ikusi doguzan izenen artean, badagoz beste edizino batzuk irabazi dabezanak be. Lasterkari ezagun batzuk aitatzearen, izena emon dabe Asier Larruzeak, Onditz Iturbek, Ainara Urrutiak, Markel Zamakona Zeanurikoak, Walter Becerrak, Imanol Goñik... Euskal Herri mailan oso izen handiak apuntatu dira eta espero dogu beste batzuk be etortea. Euskal Herri mailan nibel aldetik nahiko goian dago hau.

Taldeen artean be arrakastatsua izan da. Gernikako Arrolape taldeak, 50 izen emote egin dauz; Gasteizko Gaikarrek ia 40 izen-emote egin dauz 24 km-ko karrerarako, eta Aiaraldeak 15 inguru. Taldeen txapelketan be lehia egongo da.

16 km-ko karrera gazteen-tzako izan arren, edonok emon ahal dau izena, ezta?

Bai, distantzia laburragoa danez, momentu honetan mendian galapan hasten dagozanentzako egokia da. Horreetan karrera samurrago bat egin gura izan dogu, Junior eta Kadeteen zirkuitua aprobetxauz. Danak egingo dabe galapan batera, danak urtengo dira herritik eta herrian amaituko dabe. Aurreko

urteetan ez genduan hori egiten, karrerako beste puntu baten hasten ziran, baina ikusi genduan, danak herrian hastea inportantea zala; danak batera hastea eta herrian hasi eta amaitutea. Eta topau dogunean bide alternatibo bat eurentzako, aprobetxau dogu beste lasterketa bat sortuteko. Badakigu 24 km-koa oso exijentea dala, 24 km eta 1.700 +. Oso gogorra da eta martian jente asko oindino ez dago prest holango distantzia egiteko. Baina 16 km ez da distantzia oso luzea eta 900 + desnibela dauka. Lasterketa barri bat da baina uste dogu jenteari gustauko jakola. Ea jente apur bat gehiago apuntean dan.

Antolakuntzako lanak aurreratuta egongo dira honezkerok.

Hor gabiz azkenengo esprintean, ia hilabete bat baino ez da falta eta. Atzenengo lanak egiten gabiz, dana ondo preparentan. Eta ibilbideak garbituten, jenteak entrenau ahal dagian bertan, ze badakigu jentea etorten hasi dala Bediara entrenetan. Bizkaiko Txapelketea danez, bizkaitar asko hurbilduten hasi dira, ea nondik entrenau ahal daben galdezka. Dana ondo zarratuten gabiz eta ondoen kudeatuten COVID-19aren asuntua, ze astero dago lege barrin bat.

KONTZERTUA

Txomin Artolak
kontzertua eskainiko dau
Kotxepin Kultur Etxean

Erredakzioa

Zezeilaren 18an, 19:30ean izango da emonaldia Lemoan. Bertan, bere musika ibilbideari gainbegiratu emongo deuto 1970eko hamarkadatik gaur arte, euskal musikan ezinbestekoa dan kantariak.

Txomin Artolak 1975ean atzera eban bere lehenengo diskoa *Olasta* eta atzera 2021ean, *Et In-*

carnatus Est izenekoa. Liburu-disko honetan bere ibilbide osoko 14 kantu jasoten ditu, Lemoan be entzun ahal izango diranak. Kantuak aukeratzea ez dala lan erraza izan, baina sartu diran hamalauak, derrigorrez sartu behar zirala eta diskoa "Artolaren ibilbide oparoaren isla egokia" dala esan eban Migel Zeberio *Et Incarnatus Est* disko-liburuaren proiektuaren bultzatzaileak.



KONTZERTUA

Mikel Gaztañaga eta Charlie
Coshen emonaldia The Quiet
Corner tabernan

Erredakzioa

Zezeilaren 26an, 20:00etan izango da Mikel Gaztañaga eta Charlie Cosh-en *Rock & Roots* izeneko kontzertua. Bikoteak, rock klasikoko kantuen bersinoak egiten ditu. Areatzako saioan, Juan Duran musikaria

izango dabe konbidatu.

Cosh abeslariak Irlandako eta Kaliforniako jatorria dauka, eta, beste batzuen artean, Akelarre taldeagaz ibilitakoa da. Gaztañaga, piano jolea da eta Kepa Junkeragaz jo dau. Gitarrea eta ahoko soinua be jotzen dabe Coshek eta Gaztañagak.



KONTZERTUA

Bihotz Gorospek kontzertua emongo
dau Igorreko Kultur Etxean

Kontzertua hilaren 19an, zapatua, izango da 20:00etan.

Erredakzioa

Bihotz anpuluak izeneko laugarren kontzertua izango da; bigarrena, Arratian. Bertan, izen bereko Youtube kanaleko kantuak eta *Amagana* dokumentalekoak abestuko ditu zuzenean. Youtube kanala sortu eban oin dala urte bete eta erdi, hainbat bersino, baina batez be berak sortutako kantuak ezetuten emoteko. Mendi Film Festival-en ikusi ahal izan dan Itziar Zabala Dimako eskalatzailearen gaineko *Amagana* dokumentaleko kantuak be Gorospek sortu ditu eta zuzenean entzuteko aukerea egongo da.

Atzen urteotan, Bihotz Gorospek hainbat proiektu musikal egin ditu beste musikari edo-eta alkatagaz batera: Inun, Yogrinha Borova, Harrobi, Bizipoza Elkartea eta Kupela izan dira euretako batzuk. Oin kontzertu aro barri bat hasi dau bere bakarkako ibilbideagaz, urteotan, hainbat disko, telebistarako programa edo bideotan parte hartu ostean. Batez be, berak

sortutako abestiak entzun ahal izango dira emonaldi intimo ba-

tean. Inun, musikariaren laguntzea izango dau oholtzan.



BERBALAGUN

Familiak euskeraz biziteko
ekimena bultzatu dau Arratiako
Berialagunek Lemoan

Erredakzioa

Arratiako Berialagun ekimenak, gurasoek eta seme-alabek alkarregaz jolastu, abestu eta euskeraz biziteko Gurasolagun ekimena antolatu dau Lemoan. Ekimenak harremanetan jartzen ditu guraso euskaldunak edo-eta euskerea ikasten dabizanak eta euren seme-alabak, egoera berean dagozan beste familia batzuek, giro euskaldunean

murgilduteko. Izena, Lemoako udal webgunean emon daiteke zezeilaren 15era arte.

Berialagun ekimenetan ohikoa dan moduan, taldeak sortuko dira eta taldekideek ebatziko dabe zenbatero eta non geratu jolasak, tailerrak, txangoak eta aisialdiko beste jarduerak, familian eta euskeraz egin ahal izateko. Lantzean behin, dinamizatzaileen parte hartzea be izango dabe.



LEHIAKETEA

Zeberioko
Udalak III.
Argazki
Lehiaketea
ipini dau
martxan

Erredakzioa

Argazki Lehiaketako aurtengo gaia, baserriko lanak dira eta argazkiak Zeberion ateratakoak izan behar dira. Parte hartu gura dabenek zemendiaren 30era arte aurkeztu ahal izango dabez lanak Udal webgunean horretarako berenberegi sortutako espazioan. Saria, Zeberioko taberna baten lagun birentzako bazkaria izango da.

Argazkiak horizontalak izan behar dira, baina ez panoramikoak. Boto gehien lortzean dabezan argazki biek eukiko dabe saria, baina ezin izango da egile bera bitan saritu.

Kalidade nahikorik ez daukiela edo desgokiak zein mingarriak dirala eretxiko argazkiak baztertuko dira.

ANTZEZLANA

Andra zientzialarien gaineko antzezlanak Lasarte Aretxean

Eidabe Ekimen Kulturalak-en Piztu!
EmakumeOn energia antzezlanak ikusteko aukerea egongo da hilaren 18an, 18:00etan, Igorreko Lasarte Aretxean.

Erredakzioa

Piztu abestiaren hitzak Bihotz Gorospe musikari igorretararrenak dira.

Marie Curie ardatz dala, andra zientzialarien historiaren zehar mobiduten da antzezlanak, andrek zientzian izan dabenean benetako pisua agerian ipiniz. Umorez eta modu dibertigarrian, hainbat galdera planteetan ditu. "Zelangoa litzateke mundu bat benetako bardintasunagaz? Desorekaz eta injustiziaz betetako mundu ilunean argia biztuko bagendu? Guztion energia erabiliz guztion-

tzat aukera bardinak zabaltzen dituan mundu bat asmatuko bagendu? Eta, bat-batean, zientzialari batek asmatuko baleu ezjakintasun guztiak amaitzeko makina miraritsua? Horrek bardintasuna ahalbidetuko leuke? Eta asmatzaila andrea balitz?".

Bihotz Gorospe

Aktore lanetan Tania Fornieles eta Nahikari Rodriguez ibiltzen dira, Imanol Ituiño gidoigilea be badan zuzendaritzapean. Abestiak be baditu ikuskizunak. *Piztu* abestiaren musika Mikel Inunek egin dau eta hitzak Bihotz Gorospek.



LABURBIRA

Laburbiraren lehen emonaldia Areatzan izango da hilaren 25ean

Diman, Igorren eta Ubiden be egingo dira emonaldiak.

Erredakzioa

Euskerazko bederatzi film labur egongo dira ikusgai Laburbiraren XIX. Zirkuituan. Areatzan zezeilaren 25ean 19:30ean udaletxean, Igorren martiaren 4an, Ubiden 12an eta Diman martiaren 25ean, ikusi ahal izango dira filmok.

Aurten, Iban del Camporen *Serendipia*; Alba Romera eta Rony Devozen *Itsasoaren mugimendua*, Paula Iglesiasen *Labroa*; Jose Luis Gomezen *Falta zaizuna*; Naia Aizpuruaren *Hurrengo geltokia*; Amaia San Sebastianen *Rewind*; Aitor Alberdiren *Turnoka*; Josu Martinezen *Subandilla* eta Sergi Martinezen *Itsaso* dira aukeratuak euskerazko pelikulak. Euskaltzaleen Topaguneak antolatuten dau Laburbira eta zuzendari hasibarrari eta profesionalizetako bidean dagozan Euskal Herrian sortu barri diran film onenak eskaintzen dira hainbat herri oso-tutako zirkuituan. Arratian Zertu Kultur Elkarteak antolatzen ditu Areatza, Igorre eta Ubiden, udalen laguntzeagaz, eta Diman Abizarie eta Udala dira antolatzaileak.

Filmak

Amançay Gaztañagak eta Joseba Usabaigak egin ditue aktore lanak 16 minutuko *Serendipia* filmean. *Serendipia* pandemiaren ondoriozko konfinamentuko

istorio bat dakar: euskal biologo batek berrogeialdia bere laborategian pasetea ebatzi dau, koronavirus barraren kontrako txertoa lortzeko ikerketan murgiduteko, eta ezusteko eta zorioneko aurkikuntza bat eginen dau. Musika, Maite Arroitauregi, Mursegorena da. Mursegok 2021ean Goya saria irabazi eban *Akelarre* filmarako egindako musikeagaitik Arantzazu Callejagaz batera.

2021ean Kameratoki saria irabazi eban *Itsasoaren mugimendua* film laburra be Laburbira zirkuituan dago. Filmak, neska itsu baten istorioa dakar. Alba Romera eta Rony Devozek egin dabek aktore lanak, musika, edizinoa, kamara, argiak eta soinua.

17 minutuko *Labroa* filmak gaixotasuna eta denporearen gaineko istorioa kontetan dau. Gaixotasunak bultzatzen dau Bego, Xabierregaz batera, antxinako erlojuak konponduten. Aktore lanak Begoña Arrutik eta Xabier Yeregik egin ditue. Film honetako musika be Mursegok egin dau.

Jose Luis Gomezen bakarrizketea da *Falta zaizuna*. Bera da zuzendaria, gidoigilea eta aktorea. Gaixoa medikuarenera doa eta diagnosiak zur eta lur itxiko dau ikuslea.

Mondragon Unibertsitateko hirugarren mailako Ikus-entzunezko Komunikazionko hainbat ikasle



egindako filma da Naia Aizpuruak zuzentzen dauan *Hurrengo geltokia*. Naia Aizpuru, Uxue Morales, Angello Eloizaga, Ander Zelaia, Natalia Artetxe eta Julen Leturiondo dira filmaren egileak; Jon Ander Urresti eta Garazi Beloki, barriz, protagonistak.

Euskal Zine Bileran izandako *Rewind* 18 minutuko filma be ikusi ahal izango da Laburbira zirkuituan. Hayat Belkacem aktorea, patu bildurgarri batetik igesi eta askatasunerantz doan andra baten istorioaren protagonista da filmean.

Turnoka filma mutua da eta musika da pelikulearen protagonista nagusienetako bat. Etor Larrañagak eta Iker Etxeberriak egin ditue aktore lanak.

Subandilla (2020), *Ama* (2017) eta *Anti* (2019) filmen jarraipena da. Filma 1940ean dago giro-tuta. Alemanek Frantzia okupau dabe eta Euskal Herriko Bizkarsoron, soldaduek, Mixel eta bere "ttanttak" atxikitzen dabenean hotela erreki-sau dabe. Momentu berean, Hegoaldetik 1937a ezkerro herrira etorritako euskaldun erre-fujiaduak desagertzen hasiko dira. Kristiane Etxaluze, Manex Fuchs eta Andre Lipus dira aktoreak.

Itsaso filmean Amaia Irazabalek eginen ditu aktore lanak. Itsasok daroan bizimoduaren eraginez bere osasuna makaldu egin da eta ohiturak aldatutea ebatzi dauala kontetan dau pelikuleak.

DUNBA

Gure inguruan eragiten

Enara Gallastegi Barrenetxea DBH3koen izenean

Aurten, 2. hiru hilabetean, DBH3ko ikasleok ingurugiroa eta birziklapenari buruzko proiektu bat eginen gabiz Fisika-Kimikako arloan. Proiektu hori gauzatzeko taldeak egin doguz eta talde bakoitzak ebatzi dau ze gairi buruzko lana egin, gai zabal horren barruan.

DBH3ko ikasleok BIZI jubiladu alkarte-koakaz batera lan egin dogu. Horrez gain, Igorreko Udalak proiektua babesten dau eta proiektu irabazleak gauzatzeko konpromisoa dauka.

Lehenengo, arazoa zein dan jakiteko eta gaia hobeto ezetu-

teko BIZI alkarteko kide bi etorri ziran gugaz dokumental bat ikustera eta gure zalantzak argitzera. Dokumentala ikustean ohartu ginan zaborraren kudeaketan arazo handi bat dagoala eta guk be eragin leikegula hori konpontzeko, eguneroko bizitzako gauza batzuk aldatu ezkerro. Hori ikusi ondoren gaia aukeratu genduan eta hurrengo saioan galdetegi bat prestatu genduan ikerketarako baliagarri izango jakuzan galderakaz. Galdetegi prestatu genduan kalera urten ginan bertako jenteari galderak egitera.

Behin datuak ondo ordenetan doguzanean, gure hasikerako helburua martxan ipiniko dogu. Gero, poster bat egingo dogu



eta feria baten aurkeztuko dogu gure proiektua; galdetegiaren emaitzak, ondorioak, arazoa konpontzeko egin doguna eta

abar azalduz. Aurkezpena egin ondoren *plogginga* egingo dogu (jolas bat, talde bitatik zeinek zabor gehien batu). Berbaldi bat be

jasoko dogu polimeroei buruz eta amaitzeko Igorreko zabortegi bisitauko dogu.

Esperientzia oso aberasgarria da ikasleontzat bai BIZI alkarte-koakaz batera lan egitea eta baita galdetegiak eginaz informazioa ateraten ikastea be. Horrez gain sano garrantzitsua da arazo honeri aurre egiteko aurrerapausuak emotea.

Holango proiektuek interesa bizten dabe eta horregaitik asko ikasten dogu. Momentuz ez daki-guz proiektuaren emaitzak baina oso gustura gabiz lanean.



AGENDEA

**ZEZEILAK 15
ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

AREATZA

Negu osoan zehar mendi ibilbide autogidatua: Larreder-Karkabitxuetar-Larreder. Goi mendietako antxinako lanbideak ezetuten. Zailtasun baxua. Eskatu informazio gehiago Parketxean. 94 673 92 79 eta *gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus*.

ARRATIA

Baserrietako hondakin plastikoen bilketea 15ean eta 17an. Izena emon Gorbeialdeko 94 631 55 25 eta 663 873 442 telefonoetan.

ARTEA

18:00etan, Arratiako andrak bistaraten wikilarien saioa Wikipedia elikatzeko. Andren Gelan, Kultur Etxea.

BEDIA

16:30etik 19:30era, izen emotea zabalik andrazkoen alkarte sortu eta *Larrua lantzen* eta buruhandiak egiteko ikastaroetan eta *Eguno feminismoaren zereginak* eta *Etorkizuneko ikasketak aukeratzeko orientazioa* berbaldietarako hilaren 17ra arte. Liburutegian.

Hilaren 28ra arte, martiaren 19an jokatu dan VI. Kolazinoko Mendi Egunean boluntario izateko aukerea. Izena *kmebedia@gmail.com* helbidean emon.

16:30etik 19:30era, hilaren 18ra arte, zezeilaren 27an egingo dan kanporamartxo, goizeko urtekeran izena emoteko epea.

Kolazino Mendi Egunerako izen emotea zabalik *sportmaniacs.com*-en.

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik, astelehenetik barikura.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

IGORRE

09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Goizetan ez dago mailegu zerbitzurik.

08:00etatik 22:00etara ikasgela zabalik. Aurretik Kultur Etxera deitu behar da zitea eskatzeko 94 673 62 51 telefonoan.

Astelehenetik barikura 09:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:45era, hilaren 28ra arte, *Igorreko Eskola Bidea* erakusketea Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Hilaren 21era arte, Orratzak taldeak emongo dauan *Feminismoa eta euskal identidadea* tailerlean izena emoteko epea zabalik *arratiaberba@gmail.com* helbidean.

LEMOA

Hilaren 18ra arte, Elkartruke Proiektuko udako bidaiarako izen emotea zabalik udal webgunean. Lemoan errolatuta eta 2001 eta 2004 artean jaiotakoak. Bidaia garagarriaren 11tik 17ra izango da. 250 euro.

Gurasolagunen ekimenean parte hartzeako izena emoteko azken eguna udal webgunean.

17:30ean, Ludotekatik *Urpekotzi misterioa* ikuskizuna ikustera Kotxepin Kultur Etxera. Adin tartea

HH4-LH6. Ume bakoitza heldu batez joan behar da.

08:00etatik 21:00etara, astelehenetik domekara Kotxepineko ikasgela zabalik.

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik astelehenetik barikura Kotxepin Kultur Etxean.

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Zemendiaren 30era arte, III. Argazki Lehiaketan parte hartzeako aukerea. Gaia: baserriko lanak. Argazkiak udal webgunean horretarako berenberegir sortutako espazioan ipini.

**ZEZEILAK 16
AREATZA**

18:30ean, Oier Araolazaren berbaldia *Mozorrotzea ez da disfrazatzea* Udal Aretoan. Guraso alkarteak antolatuta.

ARTEA

18:00etan, Arteako Guraso Eskola. Roberto Aguado psikologoaren berbaldia *Violencia* Kultur Etxean.

BEDIA

Andren omenez egindako bufanda zatiak josteko alkartu liburutegian.

19:00etan, jaietako batzordearen lehenengo batzarra udaletxean.

**ZEZEILAK 18
DIMA**

18:00etatik 20:00etara, Ilgoran Jabekuntza Eskoleak antolatuta, *Ahizpatasuna gure gorputzean* Edurne Epelde Pagolaren eskutik. Eskolan.

IGORRE

18:00etan, Eidabe konpainiaren *Piztu! EmakumeOn energia* antzezlan Lasarte Aretoan.

LEMOA

19:30ean, Txomin Artolaren kontzertua

Kotxepin Kultur Etxean.

ZEBERIO

19:00etan, saio parte-hartzailea udaletxean, *Zaintza eta erantzunkidetasuna*, diagnostikoaren ondorioen aurkezpena. Zer egin daiteke Zeberion honen aurrean?

**ZEZEILAK 19
DIMA**

10:30etik 14:30era, Ilgoran Jabekuntza Eskoleak antolatuta, *Ahizpatasuna gure gorputzean* Edurne Epelde Pagolaren eskutik. Eskolan.

IGORRE

20:00etan, Bihotz Gorospere *Bihotz anpuak* kontzertua Lasarte Aretoan.

19:00etan, manifestazioa Kiñu Gaztetxearen alde "Kiñuz gaztetxea defendatu" Ilolepean Kultur Etxetik.

21:00etan, Ernaik antolatutako ZUTIK! gazte martxearen Bizkaiko aurkezpen jaialdia Kiñu Gaztetxean. Sigerubanek abestuko dau Pula Gzonek ipinitako musikea, Leihotikan punk-rock taldea eta Gora Etorri taldea.

LEMOA

10:00etan, Zugatz eguna Elizondon. Ez da aurretiaz izena emon behar eta ez da hamaiketarik bananduko. Edabeak bai.

ZEANURI

10:00etan, Mazala Andra Taldeak antolatuta, hamabostero, *Biodantza* ikastaroa Elena Ocasarren eskutik gimnasioan. Izena 605 749 696 telefonoan emon behar da.

**ZEZEILAK 20
AREATZA**

10:00etan, plazan. Kanporamartxo. Plazatik urtenda Upokomakatzako merenderora igon, gura dauanak Upo tontorreraino be igon ahalko dau. Txixi-

burduntzia Upokomakatzan. Eguraldi txarra egin ezker ibilbidea bertan behera geratuko da eta txixi-burduntzia plazan izango da 11:30ean. Lamino Kirol Klubak eta Guraso Elkarteak antolatuta.

ARTEA

13:00etan, kanporamartxo Elexabeitin.

BEDIA

Ganguren Mendi Taldeak antolatuta, eski urtekerea Alto Campoora umeentzat.

IGORRE

17:00etan, zinea, *Spiderman: no way home*; 19:30ean, *No somos nada* Lasarte Aretoan.

**ZEZEILAK 21
LEMOA**

17:00etatik 20:00etara, Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak antolatuta, *Locas por las herramientas* ikastaroa Paz Carbajosaren eskutik liburutegi zaharrean. Astelehenetan maiatzera arte.

**ZEZEILAK 22
IGORRE**

17:00etan, *Scrapbook* tailerra Zazpi Haizetara dendan. Izena alde aurretik emon 635 750 097 telefonoan edo *itargipean@gmail.com* helbidean.

**ZEZEILAK 23
BEDIA**

Andren omenez egindako bufanda zatiak josteko alkartu liburutegian.

**ZEZEILAK 24
IGORRE**

18:30ean, Berbalagunek antolatuta, *Feminismoa eta euskal identidadea* tailerra Arratiako Orratzak talde feministearen eskutik Kultur Etxean.

LEMOA

18:00etan, Maider Alcelay ipuin kontalaria, *Istoria hegalaria* 6 urtetik

gorakoentzat Kotxepin Kultur Etxean.

**ZEZEILAK 25
AREATZA**

19:30ean, Laburbira, euskerazko film laburren XIX. Zirkuitua udaletxean.

ARTEA

19:00etan, Kokomarroek antolatuta, Aratuste kalejire, eskolan hasi eta plazaraino. "Kuberue" erre eta mokautxo.

19:00etan, Irakurleen txokoa. Eider Rodriguezen *Eraikuntzarako materiala* liburua.

DIMA

17:00etan, DJ Isma eta mozorro desfilea; 19:00etan, Jokaldi eta txokolata.

IGORRE

17:00etan, Irrien Lagunak konpainiaren *Elkartasun jantokia* Lasarte Aretoan; 19:00etan, Lekittoko deabruak kale animazioa. Ostean txokolata bananduko dau Guraso Elkarteak errugbi zelaian (105).

LEMOA

18:30ean, Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen ikuskizuna *Zoro gaitezen* kiroldegian; 19:30etik aurrera trikupoteoa Oxabiren lagunak taldeagaz, jubiladuen tabernatik hasita.

ZEBERIO

19:30ean, Biren taldea Ermitabarriko San Antonio ermitan. Ermitabarri-Isturripe Kultur eta Kirol Elkarteak antolatuta.

**ZEZEILAK 26
AREATZA**

20:00etan, Mikel Gaztañaga eta Charlie Cosh-en kontzertua *The Quiet Corner* tabernan.

DIMA

21:30ean, Galazota taldearen kontzertua Baltzola jatetxean.

IGORRE

12:00etan, herrian zehar kalejire mozorrotuta, Garben hasita. Amaieran gazteek antolatutako kopautxo danontzat.

ZEBERIO

11:00etan, liztor asiatiakoaren gaineko berbaldia Gaztelekuan.

**ZEZEILAK 27
BEDIA**

Kanporamartxo, goizeko urtekerea.

IGORRE

17:00etan, zinea, *Tundama, el templo del sol*; 19:30ean, *El callejón de las almas perdidas*. Lasarte Aretoan.

**ZEZEILAK 28
ARTEA**

18:00etan, Eleder magoa frontoian.

IGORRE

Zastaparrak eta Berbalagun taldeek antolatuta *Inauteriak familian*. Mozorro tailerra eta 12:00etan kalejire.

LEMOA

17:00etatik 20:00etara, Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak antolatuta, *Locas por las herramientas* ikastaroa Paz Carbajosaren eskutik liburutegi zaharrean. Astelehenetan maiatzera arte.

MARTIAK 1**ARTEA**

18:00etan, Arratiako andrak bistaraten wikilarien saioa Wikipedia elikatzeko. Andren Gelan, Kultur Etxea.

BEDIA

Inauteriak. 17:30ean, sarrerea, *photocalla* eta desfilean izen emotea frontoian; 18:00etan, desfilea herrian; 18:30ean, ikuskizuna.



Mikel Etxabururen poemen errezitaldi musikatua egingo dabe Areatzako komentuan

Oroitzen hondarrak nota txikietan izeneko emonaldia eskainiko dabe zezeilaren 19an, 19:30ean Areatzako komentuan Nerea Zuloagak, Mikel Etxaburuk eta Izaskun del Cerrok. Ikuskizuna, Mikel Etxabururen *Ahaztu baino lehen, ama* poema liburuan oinarrituta dago eta piano musikea zuzenean, kantuak eta poema errezitaldiak batzean ditu.

Ahaztu baino lehen, ama poema liburua, oin dala hiru urte hasi zan idazten Etxaburu, ama bizitzaren atzen fasean sartzean. Liburua kantu bat da, esperantza emoten dauana. "Bere bide horren bidaide izan gura neban. Eskutik helduteko modu bat da, nik poema bidez egin dot, neure erara. Bera hobeto ulertuteko, beragaz hobeto egoteko manera bat izan da. Nire amari kantetan deusat, idazten deusat, baina nirearen moduan beste ama eta aita asko dagoz" azaldu eutsan egileak Berria egunkariari Maider lantzik egindako alkarrizketa baten.

Beste hiru poema liburu be baditu egileak *Zu zara orain txoria* (Elkar, 2011), *Hodeiak zapatetan* (Susa, 2014) eta *Lo zaudela zabaldu dizkizut begiak* (Erein, 2016). Atzen honegaz, Blas de Otero-Bilbo Uri nazinoarteko saria irabazi eban.

KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK ETXEA SALGAI

70 m²ko pisua salgai Diman, beheko solairua. Gas naturala, logela 2, komun 2, egongela-jangela, suetea eta garajea. Altzairuz horniduta dago. 150.000 euro, negoziagarria. Telefonoa: 652 704 879.

SALTZEAN DOT

Soinu ekipoa salgai: Berhinger Xenyx 2442 FX mahaia, bozgorailu bi autoanplifikatuak Berhinger B300 eta hanka bi. Dana, 400 euroan saltzean dot. Deitu 657 707 725 telefonora.

SALTZEAN DODAZ

Saltzean dodaz altzari barriak eta erdiarriak. Argazkiak bialdu daikedaz edo etorri zaitekezie ikusten. Telefonoa: 666 135 596.

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

LANA

INGELES IRAKASLE BILA

Ingelesa dakian persona baten bila

nabil, batxilergoko lehenengo mailan dagoan ikasle bateri klaseak emateko. Interesdunek deitu 620 607 952 telefonora.

KLASEAK EMOTEN DODAZ

Lehen Hezkuntzako ikasleentzat Matematika, Euskera eta Gaztelania klaseak emoten dira online eta aurrez aurre. Kontakturako telefonoa: 646 447 988.

KLASEAK EMOTEN DODAZ

3. eta 4. DBH eta Batxilergoko ikasleentzako matematika, fisika, kimika, teknologia... klaseak eskaintzen dira Igorren; institutu ondoan. Informazio gehiagorako deitu edo WhatsApp-a bidali 608 381 984 zenbakira.

Zezer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Bihotz Gorospereen kontzerturako.

Rafa Ugalde (Dima)
Amaia Mintegi (Igorre)



2

Lemoako Udalak emondako bina sarrera Txomin Artolaren kontzerturako.

Idoia Zuloaga (Areatza)
Klara Astondoa (Areatza)



begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 19 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

umean medu
sem
@-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tlf. 94 631 92 96 • semedu@hotmail.com

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROSER
SABINO ARANA 36
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

begitu

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxe 94 612 11 96
Sabino Arana 3. beheka - Igorre (Bizkaia)

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

begitu
eus



BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

2022AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DANKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2022an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da: **Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?**

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkartea Herriko plaza 24. 48142 Artea.



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: 35€ 55€ 75€

begitu.eus



Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.

IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!

Informazinoa: **649 979 115** eta inigoirua@begitu.eus

LEHOA
946 31 44 06
ZABAL@ALKIZABAL.NET

ALKIZABAL

LEHOA - BASAURI
www.alkizabal.net

BASAURI
946 51 05 99
BASAURI@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA















